

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesus Urkiza Etxebarria Txaparro

*Muxika,
Bizkaia
(1929-2011)*

Aurkibidea



Biografia



1929. urtean munduratu zen Lemoako Lauretan, baina jaio eta segidan etorri ziren Gorozikako (gaur egun Muxika) Mendigurenera. Bere aita jaiotzez Mendatako Albizekoa zen, baina Gorozikako Mendigurenen hazitakoa eta bizi izandakoa; ama, ostera, Lemoako Lauretakoa zen. Bere aita bera jaio aurretik hil zen. Bost neba-arrebatatik gazteena izan zen. Gerraostean bederatzirte zituela hasi zen Gorozikako eskolara, eta gero Oka auzoko Ertzillako Itziarren zuen eskola partikularrera joan zen. Hamaika urterekin zapatuetan Zugastietako Bitturiñarenean bizargile lanetan hasi zen. Beti ibili izan zen baserriko beharretan eta horri lotutako zaletasunak eta lanak izan zituen. Idiak izan zituzten etxean eta idi-probetan ibilitakoa da. Gorozikako hare-harrobian aritu zen 30 urtez erretiratu arte, eskabadorako txofer eta artezilari ibili zen. Gorozikan bertan eta inguruko auzoetan etxerik etxe gari jotzen ibilitakoa da. Emaztea Gorozikako Asuako du eta bertara ezkondu zen.

Zintak

MUX-033

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-08-04
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

MUX-034

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-08-04
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Anaia gerran

- **Erref:** MUX-033/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Umetatik hasi behar izan zuten lanean bizimodua aurrera ateratzeko. Gerra hasi zenean, bere anaia nagusia soldadu joan zen. Teruelgo bataila ezagunean parte hartu zuen. Karretero zen eta etxera erretiratu zen zaurituta. Gainerako bi anaia ere soldadu eraman zituzten.</p>

2. Okako Itziar Erzillaren eskola

- **Erref:** MUX-033/003
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:09:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Berak ez zuen izan eskolara joateko asti askorik. Soloko mokilak apurtzeko makinak harrapatu zuen eta 9 urtera arte ez zen joan eskolara. Nesken maistra doña Marina zen, baina mutilena behin eta berriz aldatzen zuten. Gorozikako eskolan fundamentu askorik ez zegoela-eta, Muxikako Oka auzoko Itziar Erzillaren partikularrera joan zen. Auzo ezberdinetako jende asko batzen zen Okako eskola hartan. Itziar maistra ona zela dio.

3. Inaziok Itziar maistrari egindako gaiztakeriak

- **Erref:** MUX-033/004
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:09:48. **Bukatu:** 00:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Askotan Okako Itziarren eskolara joan barik, igeri egitera joaten ziren presara. Behin Inazio Aretzaga maistrak harrapatu egin zuen eta hurrengo

egunerako zigorra jarri zion, gainerakoak baino ordu bete gehiago geratu behar izan zen. Ordu horretan Inaziok arbelean maistra bere mutil-lagunarekin marraztu zuen eta hori dela-eta, beste zigor bat jarri zion.</p>

4. Idiekin karretero eta probetan

- **Erref:** MUX-033/005
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:13:46. **Bukatu:** 00:15:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eskola bukatutakoan osabarekin hasi zen lanean karretero bezala, idiak zituzten-eta etxean. Idi-probetan ere ibilitakoa da.

5. Zornotzako idi-proba

- **Erref:** MUX-033/006
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:15:19. **Bukatu:** 00:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Zornotzako probalekuan jokaturako idi-proba bat kontatzen du. Berak ez zuen dirurik jokatzeko ez baitzuen dirurik.

6. 30 urtez harrobian

- **Erref:** MUX-033/007
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:19:13. **Bukatu:** 00:21:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Etxe alboko harrobian 30 urtez aritu zen beharrez 62 urterekin erretiratu arte. Asura bizitzen joan zenean hasi zen.

7. Idi-proban gizon-proben kontra

- **Erref:** MUX-033/008
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:21:58. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Lehenago Aulestiko bost gizonen kontra jokaturako idi-proba aipatu du eta horren azalpena ematen du: bost gizonak gizon-proban eta bera idiekin. Mundakarrak eta aulestiarrek aritzen ziren gizon-probetan.</p>

8. Probetarako zaletasun asko zegoen

- **Erref:** MUX-033/009
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:26:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Jende gehien Abadiñoko probalekuan batzen zen, bertako San Blasetan. Markina-Xemeinen ere zaletasun asko zegoen, baina Jesus bera sekula ez zen joan. Zornotzara baino ez zen joaten, garraiorako dirua behar baitzen. Zornotzan diru nahikotxo mugitzen zen.

9. Mendatako zaldi- eta mando-probak

- **Erref:** MUX-033/010
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:26:14. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Probetan gizonak baino ez zuten jokatzeko dirua, andrek ez. Zornotzako probalekua ez zen ona, harria soltatu egiten baitzen. Mendatan zaldi- eta mando-probak egoten ziren. Harri bera izaten zuten zaldiek zein mandoek, baina zaldiari bestelako pisua gehitzen zioten.

10. Zaldiak eta idiak entrenatzen

- **Erref:** MUX-033/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Zaldiak domeketan entrenatzen zituzten meza ostean. Sasoi hartan ez zegoenez probalekurik eliza inguruan aritzen ziren. Idiekin ez zuten aparteko entrenamandurik egiten.

11. Idiarentzako baba, zahia eta ardoa

- **Erref:** MUX-033/012
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:32:22

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gauez baba eta zahia ematen zieten eta Zornotzako probetara joan aurretik ardoa ere bai. Ardoak berotu egiten ditu idiak. Idi bakoitzari azunbre erdi ardo ematen zieten, litro bat. Santi Morga ezagunak kapritxozko idiak zituela dio.

Transkripzioa

- Ta entrenatako ze emoten zotsazun idixeri-eta probatako ta ze jateko edo ze?
- Jan guk? Guk geuk ezebez, ididxeri babie, ididxeri babie ta gabetan horra Zorrontzara joateko ba ardaue emoten notsien gabien.
- Ardaue?
- Bai goizien babie ta zahidxe ta gabien ba jatekoa ostantzien ta ardaue. Ba sarri euki giñun ogetik jai ta mantetute mejore dittezen apur bet ta izerditten egoten zien korta, ta.
- Ta ardauek ze eitten otsien ba?
- Ardauek berotu, berotu, bai. Hemen koadrilla bat junteu zen gero ba jokatzeko ba euren artien, ta harek pageu ostiezan ardauek-eta.
- Bai ze merke ez dotsun urteko ba.
- Ez, ez zauen zorrik-edo, baia pozik hantxe zerien-ta. Nik neuk ez betiko jatordue bai, baia babie ta zera ardaue ba koadrillien konture.
- Ta zemat ardaue emoten tsazuen ba?
- Bakotzari azunbre erdi ardaue ingeru.
- Zemat da hori?
- Litro bat.
- Litro bat.
- Litro bat bai.
- Eta bestiek be hori emoten bien, beste probalarixek -eta be bai ardaue-eta emoten zotsien?
- Bai, bai.
- A orduen normala zan?
- Bai, bai, bai. Ardaue holan proban-ta dabillenak asko, babie, zahixe ta ardaue. Bai, bai esaten euen honek Santi Morga, hemengo Morgako bat, afanekoa zan ta idixek be onak eukitten zittun onak beti ta oillotan be baztarrak eukitten euen. Ta andriek esaten euen eurenien jaixoten dien arrutzek erdixek idixek jaten dittuela, gizonak erregular gabetan arrutzek, bai bai. Ta proba asko irebazten euen, asko, idixek be kapritxokoak ekezan ta, beti zan, "nor?" ta "Santi Morga". Ta Santi Morga ta bai, Ibarra zera zan hori, andrien aitte.

12. Idien salerosketa

- **Erref:** MUX-033/013
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:32:22. **Bukatu:** 00:33:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Hasierako idiak Respalditzan erosi zituen osabarekin batera. Hortik aurrera aldaketa egiten zuten idi zaharrak eman eta berriak lortuz. Idi on batek 8.000-10.000 pezeta inguru balio zituen sasoi hartan, bera gaztea zenean.

13. Idiak baserri handietan baino ez

- **Erref:** MUX-033/014
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:33:54. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ibarrurin ere bazegoen idi-probetarako zaletasuna. Okolo baserriko Asentzio, Barrutabeña, Arandia... Idiak baserri handiek baino ez zituzten izaten. Askok baserriko lanetarako baino ez zituzten erabiltzen; Jesusek-eta, ostera, basoko lanetarako ere erabiltzen zituzten.

14. Idi-probetako tranpak

- **Erref:** MUX-033/015
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:38:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Idi-probetan tranpak, "tongoak", egiten zirela kontatzen du. Sarritan auzoak hondatzea baino ez ei zen asmoa. Idia mozkortzea normaltzat hartzen zen. Tranpak beti egon direla dio eta Zornotzako proba bat dakar gogora. Lurrean xaboa botatzen zuten batzuetan labain egiteko.

15. Perratokiak Zugastietan eta Urrutxun

- **Erref:** MUX-033/016
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:38:15. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Ganaduarentzako perrak jartzeko perratokia Zugastietan egoten zen, Hipolito zen perratzailea. Urrutxura ere Zornotzako Txomin perratzailea joaten zen astean behin.</p>

Transkripzioa

- Herradurak-eta?

- Herradurek Zugastan oin zerak dekona, zelan da, Angel?

- Bai.

- Harek eken han, oin etxie eindde dau, han herratokixe. Ta han herratokixen herraduretan zien hemengoak, ta ostantzien ha baiño hobie zala-ta, Urrutxure etorten zan Zorrontzako herradore bat, Txomin, ha etorten zan. Ta harek herradureu ta bueno. Herradurek oin iñor ezin lei topeu herradore bat be iñun, baia orduen sasoi en ba edozein egunetan joan Zugastara ta berak ipintze otsun gero egune be ta gurieri be horrako probarako, ze pisue ekien txikitxu, gitxitxu. Eitten euen laban, ta horrek herradureu zittuen ta herradureri ataa zetsiezan punt en gantxoak, hauxe izetie lez ebai zerriaz lelengo, ta gero, dobleu ebatu deizon behieri, halan zertu osten /zertusten/, bai. Horrek horrek ba biher asko eitten euen Hipolittok. Eta Urrutxun ez daitz egunetan edo noz egoten zan, bai, Txomin.

- Ta orduen Gorozikeko danak Zugastara bajatu biher.

- Bai Gorozikekoak eta Iburrikoak be bai, danak.

- Ta Eutzaganekoak-eta?

- Eutzaganekoak be bai. Ta ostantzien, Zorrontzan, horrek Txominek beren herratokixe Zorrontzan eken, baia fazilidaderako Urrutxun gero beste bat monte u euen, herratoki hutse, bai.

- Urrutxun nun?

- Urrutxun han Santi bizi zen hegali en, han.

- Han Santi beste alderdixen edo bertan Santin.

- Santin partetik, bai, bai.

- Eta herradurak-eta be diferentiek izengo zien ezta? Idixetzat izen edo astoantzat-edo.

- Sendoaua, bai, bai diferentiek die total. Oin, idixentzako beti sendotxuauak behixentzako baiño, ta tamaiñue ze biher deuen /bideuen/ eta holan herradoriek zertzen euen.

16. Buztarriak zelan egiten diren

- **Erref:** MUX-033/017
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Buztarriak egiteko pagoa eta intxaurra behar izaten zen. Pagoa handia izanez gero, ziriek in laurentzen zuten presara bota aurretik. Uretan izaten zuten behar zen arte. Morgako buztargin batek egin zuen Jesusen buztarria. Urkia ere erabiltzen zen inoiz. Ziriek in zelan laurentzen zuten azaltzen du, laurendu ostean urtera bota behar izaten zen ez sikatzeko. Buztarria egiterakoan, egosi egiten zen eta ostean seboa eman ez arrakalatzeko.

Transkripzioa

- Eta Buzterrixek?

- Buzterrixek ein ein biher. Neuk be Barrutabeñan orduen buzterrix eitteko pagoa edo intxurre edo holakoa izeten zan, en /bidana/ biher dana. Ta ze eitten euen? Ba pago batek zera bada, zirkunferentzi handitxu bada, laurendu ziriekaz ta gero presara bota. Ta neuk be ezin neun topeu zerik, buzterrix e, oniñogarren buzterrix e kamaran dau, ta laurendu ta han uretan

euki /bidanerako/ biher danerako. Ta hara handik atara ta ekarri ta Mendigurenen /eisten/ ein osten Morgako buztergin batek. Buzterrixek holan.

- Merkiek be ez zien izengo ezta?
- Tire ba. Orduen orduen be, orduen be dirue kostetan zan-ta, baia ba / bideunak/ biher deuenak /bideu/ biher deu ta ein ein biher.
- Orduen zer zan intxurre ta...
- Intxurre ta pagoa jeneralien, urkixe be bai, baia jeneralien hori.
- Ta esan dozun hori "laurendu"-eta eitten zala-eta. Zelan eitten zan?
- Laurendu zirixekaz, honekaz porriegaz jo ta arrakalatu erdittik ta gero erdi bi eitten zan lelengo, ta gero, ha erdixe, ha be erdi bi, ta gero segiduen ein biher ez badeu uretara bota siketu ez ditten, bai gogortu ez ditten.
- Ta gero berari be ze emoten jakon ganetik, barnixe moduko zozer, edo ze emoten jakon buzterrixi?
- Seboa guk.
- Seboa?
- Bai.
- Seboa, ta zetako izeten zan seboa?
- Arrakaletu ez deitten. Lelengo egosi eitten zan buzterrixe balde baten-edo, ostantzien arrakalatu eitten dala ta sostenitako ta gero seboagaz bai.
- Baia buzterri bat bizi guztireko, ezta?
- Bai zera! Bai zera, ke ba!
- Estropietan zien?
- Bai, igual idi pareja bakoitzeko ba buzterri bet-edo, halan.
- Baia zemat zematero barriztu biher izeten zan buzterrixe ba?
- Buzterrixe barrizteu ein lei, baia segun nundik. Kasu baterako, idixek kokot handixe badeko, ba orduen hemengo zera naseittu ein /bitsezu/ biher dotsezu ta /eittetsie/ eitten dotsie barrutik jan, ta adar-lekuek-eta.

17. Matxin buztargina

- **Erref:** MUX-033/018
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:45:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Morgako Matxin buztargina Gorozikara joaten zen noizean behin lanera. Etxezarraga buztarginak ere asko egiten zituen. Buztarri bat egiteak egun eta erdiko lana du.

18. Gorozikan proba gutxi

- **Erref:** MUX-033/020
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:47:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

San Isidrotan asto-probak egiten ziren Gorozikan. Oso gutxi erabili zen bertako probalekua. Azken proba Muxikako Urtaintxuk eta Irazabalgo Obietak egin zuten. Diru asko balio dute probek eta askotan ez da errentagarria.

19. Sagastik garraiatzen zituen idiak

- **Erref:** MUX-033/021
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:47:53. **Bukatu:** 00:49:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Ibarruriko Antonio Sagastik eramaten zituen bertako idiak inguruko herrietara bere kamioian.</p>

20. Harrobiko eta baserriko lanak batera

- **Erref:** MUX-033/023
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:49:53. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Askotan lan asko egoten zen harrobian bera hasi zenean. baserriko eta harrobiko lanak zelan tartekatzen zituen azaltzen du. Dirua ordaintzen onak ziren ugazabak. 36 pezeta jasotzen zuten eguneko.

21. Artezilari lana

- **Erref:** MUX-033/024
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:52:44. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Erretiratzeko sasoa zuenean artezilari lanetan hasi zen Harrobian. Artezilariaren lana zein den azaltzen du.

Transkripzioa

- Gero horrek Lemoakoa zementoko etor zen, hareri /emontsen/ emon zotsen erdixe-ta, ta horrexek /esaesten/ esan esten, gizona majoa, bai. Ta "Jesus" ta "zer?" eta" zuk erretireute egon ein /bizenke/ biher zenke ze urtiek eindde dekozuz-ta. Ta baia beste geuze beat ein /bidu/ biher dogu apur bet gehitxuau geratu jatzun. Lehen zauzelez "como" eskabadorien

txofer moduen ta zera, ba ipiñiko zaittut “como artillero primero”, ta halan /ipiñisten/ ipiñi eisten eta halan zertun be eitten nitzen.

- Artilleruen bihera zein zan ba?

- Artilleruen bihera horkoxe etxe errotakuen osabie izen zan artillerue ni sartu orduko, ta izeten zan, barreneu ta gero ha kargeu polboriaz, tapeu ta zer bat, pistoa bat izeteko moduan, “un detonador “-edo esan gontsen guk. Ta hareaz sue emon ta harrixe apurtu. Ta handixe geratzen bazan, harri handitxue geratzen bazan harek eskabadorien zeraz horrek oin dabizen zerak, halakoakaz apurtu txikixauak, eta gero, patxakadorera, gero trituradorara, gero klasifikeu ta bihera.

22. Bolbora eta Guardia Zibila

- **Erref:** MUX-033/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:56:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Bolbora Rio Tintotik ekartzen zuten. Guardia Zibilak askotan etortzen ziren harrobira. Behin guardia zibil batek detonagailu batzuk eskatu zizkion, baina Jesusek ez zion eman.

Transkripzioa

- Ta polborie-ta nundik ekarten zenduen ba?

- Polborie zeretik, zelan da? hemengo..

- Emaztea: Galdakanotik.

- Galdakanotik, Rio Tinto.

- Rio Tinto?

- Emaztea: Galdakanon estaziño eurrien-edo dau.

- Bai, estaziñotik gora joanda. Guarda Zobillek-eta etorten zien hona, ta Jesus!

- Hona kanterara Goarda Zobillek? Zer dala ta edo zetan?

- Zaintzen. Aber ETari pasetan botsu-edo, antza. Bai, bai, bai, bai. Sei-zortzi guarda zobil etorten zien. Furgonetan muniziñoa, ta eurek atzetik eta eurretik “como escolta” etorten zien, bai.

- A baia eskolta moduen. Orduen?

- Bai,bai, bai,bai Guarda Zobillek bai, Guarda Zobillek ea zeuen biherrik eitten, zaindu geu, nundik gabizen ta zer eitten dun ta holakoxiek. Ta batek eskatu /eisten/ ein osten: “Oyé, no sé el nombre pero me podias dar un par de detonadores o tres?”, “no” esan notsen, “no, tengo la obligación de no dar nada a nadie, ni al guardia ni a otra persona”. “Hombre, nosotros queremos para hacer las pruebas”. “Oyé, para eso teneis alli en Rio Tinto y vais alli y alli os daran las pruebas”. Halantxik.

23. Barrenador lana

- **Erref:** MUX-033/027
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:57:23. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Barrenadora harrobiko lanpostu bat zen. Haren lana zein den azaltzen du. Postu batean ez bazen bestean arotzen ziren, sekula ez zuten lan faltarik izan.

24. Harrobiko harea lantzen

- **Erref:** MUX-033/028
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:59:00. **Bukatu:** 01:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Gorozikako harrobiko harea leku askotan erabiltzen zen, baina Etxanokoa hobea zen . Gorozikakoa kuartzoa zen eta ez zuen urik hartzen. Harea zelan tratatzen zuten kontatzen du.

25. Harrobian lehenengo putzuak garbitu behar

- **Erref:** MUX-033/029
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Harrobian goizean goizetik egin behar izaten zen lana puztuak garbitzea izaten zen. Ostean bakoitza bere eginbeharretara joaten zen. Gehienez 12 behargin egon ziren harrobian.

26. Harriei forma zelan eman

- **Erref:** MUX-033/031
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:03:13. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Arotzak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Jesus bizi den etxea bertako harrobiko harriekin eginda ei dago. Harriei forma zelan ematen zen azaltzen du. Gorozikako elizako aldarea ere bertako harriekin dago eginda.

27. Silikosisa

- **Erref:** MUX-034/003

- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:03:59. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Silikosisa harginen pairatzen zuten ohiko gaixotasuna zen.

28. Harrobia zarratu zutenekoa

- **Erref:** MUX-034/004
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:11:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Gorozikako harrobiaren ardura Maruriko batek hartu zuenean zarratu zuten. Prozesua azaltzen du.

29. Harrobiko aldaketak

- **Erref:** MUX-034/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:14:42. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Bera harrobian hasi eta utzi zuenera arte gauza asko aldatu ziren. Korronterik ere ez zuten hasieran eta bukaerarako mota guztietako makinak zituzten.

30. Urdaibaiko Erreserba zela-eta arazoak

- **Erref:** MUX-034/008
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:16:18. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Harrobiko ugazaba aritzen zen tratulari lanetan. Urdaibaiko Biosfera Erreserba izendatu zutenean, arazoak izan zituzten erre kara ur zikina botatzen zutelako. Arrainkaria zen gehien arrantzatzen zena bertan.

31. Okako presa

- **Erref:** MUX-034/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:20:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Oka auzoan presa bat dago. Lehenago Ertzilla familiak argia hortik jasotzen zuten. Okako harrobia be han ondoan zegoen.

32. Baserriko lanak gustuko

- **Erref:** MUX-034/013
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:21:29. **Bukatu:** 00:22:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Elkarrizketa egin zitzaionean oraindik baserriko lanetan aritzen zen. Gustuko du eta nahiago du horrela aritu, zer egina izatea. Lehen goldaketarako behiak eta idiak erabiltzen zituzten.

33. Gazteen zaletasunik eza

- **Erref:** MUX-034/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko lanetan ez da horrenbesteko aurrerapiderik egon bere ustez, baina gazteek ez dute zaletasunik eta ordainik ere ez da jasotzen. Lehen etxe denetan zegoen labrantza eta ganadua.

34. Etxerik etxe gari-joten

- **Erref:** MUX-034/015
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:23:47. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Lau prakadun, lau gizon, etxerik etxe aritzen ziren gari-joten. Erabiltzen zuten makinaren funtzionamendua azaltzen du. Gaur egun ez dago garirik eta baserriatik bizitzea ere ezinezkoa da. Orain arte pinuak asko lagundu du, baina balioa galdu du.</p>

35. Baserriko tresnak eta erabilera

- **Erref:** MUX-034/016
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Sekula ez da laietan aritu, bera umea zela aritzen baitziren horretan. Auzoko andre bat laietan abila zela dio. Area, hiru hortzekoa (medikua), narra, goldea... zertarako eta zelan erabiltzen ziren azaltzen du. Soldadutzan Elizondon (Nafarroa) egon zen eta han aurreratuago zeuden tresneria aldetik.

36. Ira etxerako zein saltzeko

- **Erref:** MUX-034/017
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:33:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Ira zerrarekin (igitaia) ebakitzen zuten, gerora etorri zen kodaina. Metak eta satsa egiten zuten. Sats ugari egiten zuten, jada hori desagertzeaz dagoela dio. Ira ere bolantekadaka saltzen zuten.</p>

37. Barberu Zugastietan

- **Erref:** MUX-034/018
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:33:32. **Bukatu:** 00:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

11 urtegaz Zugastietan auzoan barberu lanetan aritu zen. Bizarra labainagaz kentzen zuten eta ilea makinaz eta artaziekin. Bertan bizi izandako hainbat kontu kontatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com